





**Eguraldi
ona egingo
al du?**



**Eguraldi
ona egingo
ahal du!**





Antzekoak dira soinu aldetik **al** eta **ahal** partikulak. Baina, desberdin ahoskatzen dira, eta baita desberdin idazten ere.

Jakina, esanahi desberdina dute:

- Intonazioak bereizten ditu esanahiak ahozkoan.
- Galdera- eta harridura-markek, idatzizkoan.

Dena dela, testuingurua aski izaten da adiera zuzena zein den jakiteko.



**Eguraldi ona
egingo al
du?**



**Bai. Hala esan
dute
albistegian.**






**Dena prest al
duzue
biharko?**



**Bai. Dena
prest dugu.**



**Eguraldi ona
egingo ahal du!**



**Ederrak gaude
bestela.**



Bai/ez galderak markatzeko, adizkiaren ezkerrean ezar daitekeen hitza.

Zenbait adibide

ZUZENEKO GALDERETAN:

- Etorriko **al** zara?
*Etorriko **ahal** zara?
- Ez **al** dira nekatu?
- Ikusten **al** ditun etxe haiek?
- Horri, ganbara pitzatu **al** zaio?

ZE HAR-GALDERETAN:

- Galdetu zion ea italieraz ba **al** zekien.
- Konformatzen **al** zaren, esan bai edo ez.
- Ez **al** garen isilduko ari dira galdezka.



ahal²

Partikula modala, geroaldian doazen aditzetan tartekaturik, aditzari desirazko esanahia ezartzen diona.

Zenbait adibide

ONURA, ZORIONA... DESIRATZEA

- **Biziko ahal** da luzaroan!
- Ereindako haziek uzta ederra **emango ahal** dute!
- Eskaria ontzat **hartuko ahal** dute!

EZBEHARREN BAT OPATZEA;
MADARIKATZEA

- **Itoko ahal** haiz!
- Tximista batek **birrinduko ahal** du!
- Lupuak **jango ahal** hau!



AHAL partikulararen parekoak:



agian²

interj. (Geroaldian doazen aditzekin). *Ipar*. Zerbait gertatzeko desira adierazteko erabiltzen den hitza.

Zenbait adibide

- Luzaroan eta zoriontsu **biziko** zara **agian!**
- **Agian hilen** haiz!
- **Agian eroriko** haiz!
- Eta Maria Balentinak orduan (...) hau erran zion aita higuinari:
«Elorri bat **agian sarturen** duzu eskutik, eta ez gero **ateraturen**,
etxera ni berriz itzuli artean!»

Jean Barbier, *Ixtorio-mixterio*, 1929



AHAL partikularen parekoak:



baldinba

Nahia edo itxaropena adierazten duen partikula. (Indikatibozko aditzekin erabiltzen da, batez ere geroaldian doazen aditzekin).

Zenbait adibide

- Adio, ene adiskideak, **balinba** ez betiko!
- Ez du **baldinba** honek deus gaixtorik **ekarriko!**
- **Etorriko ahal** dira **balinba!**
- Hilen naizelarik, ez dut deus garrantzizkorik utziko, eta **baldinba** ene adiskideek ene ohoretan **edanen** dituzte hortxe metatuak ikusten dituzun aguardient upelak.

Toti Mtz. de Lecea, *Hautsi da katea*, 2004. Euskaratzailea: Elena Touyarou



AHAL partikulararen parekoak:



baldinbaitere

Nahia edo itxaropena adierazten duen partikula.

Zenbait adibide

- **Badinbaitere etorriko ahal da.**
- **Baldinbaitere ez ahal da bidean galduko.**
- **Baldinbaitere ez ahal duzue Pew zaharra hemen utziko, adiskideak (...)!**

Robert Louis Stevenson, *Altxor uhartea*, 2008. Euskaratzailea: Maria Garikano

- (...) hau euritea hau euritea hau
bukatuko al da balinbatte balinbatte (...)

[> **bukatuko ahal da baldinbaitere baldinbaitere (...)**]

Harkaitz Cano, *Kea behelainoan bezala*, 1994



AHAL partikularen parekoak:



oxala

interj. Baldinba. (Baldintzazko adizki irrealekin erabiltzen da).

● **Zenbait adibide**

- **Oxala** etxean **bazeunde**.
- **Oxala** ez **banizu** atea ireki.
- **Oxala** gezurra **balitz**.
- **Oxala** bizirik egongo **balitz**.